# Bilboko Portuko V. ipuin lehiaketa

# V Concurso de cuentos del Puerto de Bilbao



Bilbao PORT

## Lehiaketaren oinarriak

Bilboko Portuko Agintaritzak (BPA) Bilboko Portuko Ipuin Lehiaketaren bosgarren edizioa iragarri du.

Lehiaketak xede du zenbait balio edo jarduera soziokultural eta hezigarri sustatzea, bai eta gazteak portuko lanetara hurbilaraztea ere.

## Parte-hartzaileak

Lehiaketa zuzenduta dago, “Ezagutu Portua” programaren barruan, portua ezagutu duten ikasleei 2019/2020 ikasturtean, hau da, 2019ko iraila eta 2020ko ekaina bitartean. Ikasle bakoitzak lan bat edo gehiago aurkeztu ahal izango du, baina zentroetako irakasleek ezingo dute parte hartu.

## Kategoria

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak

## Kontakizunen egilea eta originaltasuna

Aurkeztutako lanek originalak eta berriak izan beharko dute, norberaren adimenaren eta sormenaren fruitu, eta ezingo dute aurreko saririk izan. Era berean, ez dira onartuko beste lehiaketa batzuetara aurkeztutakoak edo argitara emandakoak osorik edo zati batean, edozein euskarritan, fisiko edo digital. Parte-hartzaile bakoitzak BPAren aurrean bermatuko du aurkeztutako lanaren titularra dela eta hori ez dela bere lan baten edo beste batenaren kopia edo aldaketa (osorik edo zati batean).Lanek ezingo dute eduki iraingarri, belzgarri edo gordinik izan, ez eta, oro har, indarreko legeriaren aurkako beste inolakorik ere; bestalde, ezingo dituzte eragin, sustatu edo bultzatu jarduketa, jarrera edota pentsamolde diskriminatzaileak, sexua, arraza,

## Bases del concurso

La Autoridad Portuaria de Bilbao (APB) convoca la quinta edición del “Concurso de cuentos del Puerto de Bilbao”.

El concurso pretende potenciar ciertos valores o actividades socioculturales y educativas, así como lograr un mayor acercamiento de los/as jóvenes a la labor portuaria.

## Participantes

El concurso está dirigido a los/as escolares que hayan visitado el puerto dentro del programa “Ezagutu Portua” en el curso escolar 2019/2020, es decir, entre septiembre de 2019 y junio de 2020. Cada escolar podrá participar con uno o más trabajos y queda excluido del concurso el profesorado del centro.

## Categoría

5º y 6º de primaria

## Autoría y originalidad de los relatos

Las obras presentadas deberán ser originales e inéditas, fruto de un trabajo intelectual creativo propio, no premiadas ni presentadas a otros concursos, ni haber sido publicadas parcial ni totalmente en ningún soporte impreso ni digital. Cada participante garantiza ante la APB ser el titular de la obra presentada y que no es copia ni modificación total o parcial de ninguna otra obra propia o ajena.

El contenido de las obras no podrá ser ofensivo, difamatorio, violento o en general contrario a la legislación vigente en cualquier forma, ni inducir, incitar o promover actuaciones, actitudes o pensamientos discriminatorios por razón de sexo, raza, religión, creencias, idioma, edad o condición.

erlijioa, sinesmenak, hizkuntza, adina edo egoera direla eta.

Hirugarrenek edukiari, egileari eta originaltasunari lotuta aurkezten dituzten erreklamazioen erantzule izango da kontakizunaren egilea; beraz, BPA salbuesten du gai horiei buruzko edozein erreklamaziotik eta indarreko legeriaren balizko edozein haustetik, hirugarrenen eskubideak urratu, plagiatu edo ez betetzea dela bide. Eskubide horien barne daude, mugarik gabe, hirugarrenen egile-eskubideak, marka erregistratuak, patenteak eta jabetza intelektual edo industrialeko gainerako eskubideak.

Horrenbestez, BPAk ez ditu bere gain hartuko aipatutako zioen ondorioz sor daitezkeen kalte-galerak. BPAk ez du inolako erantzukizunik hartuko lehiaketan onartutako lanen eduki eta iritzien gainean, eta ez du zertan haiekin bat etorri.

Era berean, Portuko Agintaritzak gorde du lehiaketa bete gabetzat jotzeko eskubidea.

El/la autor/a del relato es responsable frente a cualquier reclamación de terceros relacionada con su contenido, autoría y originalidad, por lo que exime a la APB de cualquier reclamación al respecto o de cualquier transgresión de la legislación vigente en que pudiese incurrirse por violar, plagiar o infringir los derechos de cualquier tercero, incluyendo, sin limitación, derechos de autor, marcas registradas, patentes o cualquier otro derecho de propiedad industrial o intelectual de cualquier tercero, manteniendo indemne a la APB por los daños y perjuicios que puedan derivarse por los motivos mencionados.

La APB en modo alguno se hará responsable de las opiniones ni de los contenidos incluidos dentro de las obras admitidas a concurso, ni se identificará con ellos necesariamente.

La Autoridad Portuaria se reserva, asimismo, el derecho a declarar desierto el concurso.

## Oinarriak onartzea

Ipuinen V. lehiaketan parte hartzeak berekin dakar haren oinarriak berariaz eta baldintzarik gabe onartzea. BPAk euskarazko eta gaztelaniazko ipuin onenak argitaratuko ditu, bidezkoa bada, erakundeak egoki deritzen baldintzetan eta formatuan. Oinarriak ez betetzeak lehiaketatik baztertzea ekarriko du.

## Aceptación de las bases

La participación en el V concurso de cuentos supone la aceptación expresa e incondicional de las bases del mismo. Los mejores cuentos en euskera y castellano serán publicados, si procede, por la APB en los términos y en el formato en que dicha entidad estime oportuno. El incumplimiento de alguna de las bases dará lugar a la exclusión del concurso.

## Epaimahaia

Bilboko Portuko Agintaritzak epaimahaia hautatuko du kontakizun irabazleak aukeratu ditzaten. Lan irabazleak BPAren jabetzakoak izango dira bakarrik. Epaimahaiaren erabakia publikoki ezagutaraziko da.

## Jurado

La Autoridad Portuaria de Bilbao seleccionará un jurado para determinar los relatos ganadores, que pasarán a ser propiedad exclusiva de la APB. El fallo del jurado se dará a conocer públicamente.

## Eskubideen lagapena

Kontakizun irabazleen egileek BPAri lagako dizkiote beraien ustiapen-eskubideak, modu esklusiboan eta denbora eta lurralde-mugarik gabe.

Hortaz, BPAk eskubidea izango du kontakizun irabazleak edozein hedabidetan esklusiboki argitaratu, editatu, banatu eta errepikatzeko.

Lehiaketaren parte-hartzaile guztiek, eta bereziki irabazleek, baimena ematen duten beren izena zabaltzeko, hala nola lehiaketan ateratako edo emandako argazkiak hedatzeko. Lehengo datuen erabileraren bidez, eskubideak BPAri doan lagatzen zaizkio eta, ondorioz, ez da ordainketarik egingo haien truke.

## Lanen aurkezpena eta entregatzeko epea

Lanak euskaraz ala gaztelaniaz aurkeztu daitezke. 2 eta 3 folio arteko luzera izango du, alde bakar batetik idatzita eta gehienez 30 lerro orri bakoitzeko.

## Cesión de derechos

Los/as autores/as de los relatos ganadores ceden en exclusiva a favor de la APB los derechos de explotación por tiempo indefinido y sin límite territorial de los referidos relatos, reservándose la APB el derecho en exclusiva de publicar, editar, distribuir y reproducir por cualquier medio los relatos ganadores.

Todos/as los/as participantes en el concurso, y particularmente el/la ganador/a, autorizan la difusión de su nombre y de las imágenes captadas o facilitadas durante el desarrollo del mismo. La antedicha utilización de estos datos supone la cesión gratuita de los derechos correspondientes a la APB y, en consecuencia, no estará sujeta a retribución económica alguna.

## Presentación y plazo de entrega

Los trabajos se pueden presentar en euskera o castellano. Tendrán una extensión de entre 2 y 3 folios por una cara, y con un máximo de 30 líneas por hoja.



Times New Roman letra erabiliko dute, 12 tamainan eta 18 puntuko lerroartearekin.

Helbide elektroniko honetara bidaliko dira: portukoipuinak@bilbaoport.eus, jaso izanaren adierazpenarekin; gaian honako hau azaldu beharko da: Bilboko Portuko V. Ipuin Lehiaketa.

Ez da testurik idatziko posta elektronikoaren gorputzean, egilearen izena ere ez.

Hain zuzen, postak soilik izango ditu bi fitxategi hauek erantsita, ondoko izen eta edukiekin:

- Lehenengo fitxategia:
  - Izena: kontakizunaren izenburua.
  - Edukia: lanaren testua bere izenburuarekin aurkeztua.

- Bigarren fitxategia:
  - Izena: “egilea” hitza.
  - Edukia: egilearen izen-abizenak, ikastetxearen izena, harremanetarako helbide elektronikoa eta arduraduna den nagusuaren baimena eta bere telefono zenbakia.

2020ko ekainaren 30ean amaituko da eskabideak aurkezteko epea, 12:00etan.

## Baloratzeko irizpideak

Epaimahaiak honako hauek baloratuko ditu: originaltasuna, sormena, baliatutako hizkuntza-aberastasuna, Bilboko

La letra a utilizar será Times New Roman, en cuerpo 12 y un interlineado de 18 puntos.

Se enviarán a la dirección de e-mail: portukoipuinak@bilbaoport.eus, con acuse de recibo y con el asunto: V concurso de cuentos Puerto de Bilbao.

En el cuerpo del propio e-mail no se escribirá texto alguno y ni siquiera el nombre del autor/a del mismo.

El e-mail sólo contendrá estos dos archivos adjuntos con los siguientes nombres y contenidos:

- Archivo número uno:
  - Nombre: el título del relato.
  - Contenido: el texto de la obra presentada con su título.

- Archivo número dos:
  - Nombre: la palabra “autor”.
  - Contenido: el nombre y dos apellidos del autor/a, el nombre del centro, e-mail de contacto y la autorización de un adulto responsable con su teléfono de contacto.

El plazo de presentación finalizará el día 30 de junio de 2020, a las 12 horas.

## Criterios de valoración

El jurado valorará la originalidad, creatividad, riqueza del lenguaje empleado, conocimiento del puerto de Bilbao y la forma de recoger los valores humanos y sociales.



portuaren ezagutzak eta giza nahiz gizarte-balioak jasotzeko modua. Ortografia akatsak zigortuko dira, eta lanak baztertzea ere ekarri ahal izango dute.

Gaia librea izango da, baina, gutxienez, premisa hauetako bat bete beharko da:

- Ekintza Bilboko portuan garatu behar da.
- Portuko jarduerei lotutako ogibide, jarduera edo elementuren bat agertu behar da.
- Portuak garraiatzen duen salgairen bat agertu behar da.
- Bisita gidatuan ezagututako anekdota edo irakaspenaren bat aipatu behar da.

## Sariak

Epaimahaia erabateko askatasunez eta zuhurtziaz jardungo da, eta arauzko ahalmenak izango ditu irabazlea hautatu eta erabakia egiteko -saritu ala bete gabetzat jo-, bai eta oinarri hauek interpretatzeko ere.

Epaimahaiak hartuko du erabakia, eta ezin izango da apelaziorik aurkeztu; Bilboko Portuko Agintaritzaren webgunean emango da ezagutzera, (www.bilbaoport.eus).

Hurrengo sariak ezartzen dira:

- Lehen saria: ordenagailu bat ipuina idatzi duen ikaslearentzat eta itsasadarratik itsasontziz joateko aukera ikastetxeak aukeratzen duen mailarako (75 ikasle gehienez).
- Bigarren saria: tableta bat kontakizuna idatzi duen ikaslearentzat eta 300 euro ikastetxerako.

Se penalizarán las faltas de ortografía e, incluso, podría suponer su descalificación.

El tema será libre, pero deberá cumplir al menos una de estas premisas:

- La acción debe transcurrir en el puerto de Bilbao.
- Debe aparecer alguna profesión, actividad o elemento relacionado con la actividad portuaria.
- Debe aparecer alguna mercancía que se transporta por el puerto.
- Mencionar alguna anécdota o enseñanza de la visita guiada.

## Premios

El jurado actuará con la máxima libertad y discreción y tendrá, además de las facultades normales de discernir el ganador o la ganadora y emitir el fallo otorgándolo o declarándolo desierto, la de interpretar las presentes bases.

El jurado emitirá el fallo, que será inapelable y este se dará a conocer en la página web de la Autoridad Portuaria de Bilbao, (www.bilbaoport.eus).

Se establecen los siguientes premios:

- Primer premio: un ordenador para el/la alumno/a autor/a del relato y la posibilidad de realizar una visita en barco por la ría para el curso que el colegio elija (hasta un máximo de 75 alumnos).
- Segundo premio: una tablet para el/la autor/a del relato y 300 euros para el colegio.

Bilbao PORT

**Bilboko Portuaren Agintaritza**
Autoridad Portuaria de Bilbao

**Bulego nagusiak • Hedapeneko kaiak** | Oficinas generales • Muelles ampliación
48980 Santurtzi (Bizkaia)

ezagutuportua@bilbaoport.eus
www.bilbaoport.eus